

U L I A

NERE JAIOTZ-MENDIYARI.

Atzo zala diruri.....
 Nitzala ibilltzen
 Sasi ta arboletan
 Kabiyak billatzen,
 Kirkirrak arrapatzen,
 Bildóchak maitatzen
 Juan José amezketarra
 Zanian etortzen
 Negua pasatzera
 Ardiyakiñ emen!

~~~~~

Gaur!... ¡a!... al detanian  
 Zugana igorik,  
 Ez det bildoch, kirkirrik,  
 Ez chori kabirik,  
 Baizikan isill, bakar,  
 Aparte mundutik,  
 Berak eman nazkien  
 Penetan pozturik  
 Eta Zeruetara  
 Begiak jasorik.....  
 Ordurik gozoénak  
 Pasatzen ditut nik!

. . . . .  
 ¡O Ulia! illko naiz  
 Beti zu maiterik!

ANTONIO ARZÁC.

---